



ELHUYAR
aholkularitza

HI ZKUNTZA-NORMALKUNTZARAKO PROIEKTUA DISEINATZEKO GOGOETA-PROZESUA

**IKASTETXEETAN GOGOETA-PROZESUA
EGITEKO AUTOGIDA**





AURKIBIDEA


1. SARRERA.....	3
2. GOGOETA-PROZESUAREN DESKRIBAPEN OROKORRA	5
3. ALDERDI METODOLOGIKOA:	6
1. saioa.....	6
1.1. dinamika: Elkar ezagutzea, taldea girotzea, espektatibak eta balioak lantzea	6
1.2. dinamika: Prozesua aurkeztea eta azaltzea	8
1.3. dinamika: Euskara gure bizitzan (1)	9
1.4. dinamika: Euskara gure bizitzan (2)	10
1.5. dinamika: Balorazioa	13
2. saioa.....	15
2.1. dinamika: taldea girotzea	15
2.2. dinamika: Saioko egitaraua aurkeztea	16
2.3. dinamika: 2006-2010eko HNParent balorazioa (1)	17
2.4. dinamika: 2006-2010eko HNParent balorazioa (2)	19
2.5. dinamika: Ikastetxearen diagnosia	23
2.6. dinamika: Balorazioa	24
3. saioa.....	25
3.1. dinamika: Taldea girotzea	25
3.2. dinamika: Saioko egitaraua aurkeztea	26
3.3. dinamika: Ikastetxearen diagnosia	27
3.4. dinamika: Aurrera begira jartzea (1)	28
3.5. dinamika: Aurrera begira jartzea (2)	30
3.6. dinamika: Balorazioa	33
4. saioa.....	35
4.1. dinamika: Taldea girotzeau.....	35
4.2. dinamika: Saioko egitaraua aurkeztea	36
4.3. dinamika: Aurrera begira jartzea (1)	37
4.4. dinamika: Aurrera begira jartzea (2)	38
4.5. dinamika: Aurrera begira jartzea (3)	39
4.6. dinamika: Birkokatu	40
4.7. dinamika: Balorazioa	41

1. SARRERA

Ulibarri Programa duten EAEko ikastetxeek erronka nagusi bat dute 2009/2010 ikasturtean: **2010-2014 urteko Ikastetxeko Hizkuntza Normalkuntza Proiektua diseinatzea.**

Diseinu-lanak 2009ko irailetik 2010eko otsailera izango dira. Tarte horretan ikastetxeek ikastetxean bertan **euskararen egoeraren diagnostia** egin behar dute. Eta argazki hori oinarri hartuta, hurrengo lau urteetarako **Hizkuntza Normalkuntza Proiektua diseinatu.**

Diagnostikotik diseinurako jauzia egiteko ikastetxeei lagungarri izan dakiekeen autogida da honakoa. Autogidan jasotzen da **ikastetxean gogoeta-prozesua bideratzeko proposamen metodologikoa**, behin ikastetxeak diagnostia eginda eta Brankako datuak eskuartean dituela, Proiektua idatzi eta aplikazioa bete aurretik.



FASEAK	EPEAK
DISEINU-FASEA	2009ko iraila-2010eko otsaila
Diagnostia	2009ko iraila-azaroa
HNP	2009ko abendua – 2010eko otsaila

GOGOETA-PROZESUA

Gogoeta-prozesuaren **helburuak** honakoak dira:

OROKORRA:

Ikastetxeko hurrengo lau urteetarako Hizkuntza Normalkuntza Proiektua (HNP) diseinatzerakoan, gogoeta-prozesua egitea ikastetxea osatzen dutenek parte hartuta.

ZEHATZAK:

- HNPk ikastetxeko behar eta egoerari erantzutea, **egiteko modukoa** izatea
- Gogoeta-prozesuan parte hartuko dugun guztiok **ikastea**
- HNParen **baliagarritasunaz** jabetzea
- Hurrengo lau urteetarako HNParen **garapen arrakastatsurako baldintzak** sortzea



- Hurrengo lau urteetako HNPrako helburu orokorra eta esparrukako helburu zehatzak adostea.

Autogida modu honetan dago antolatuta:

1. Sarrera
2. Gogoeta prozesuaren deskribapen orokorra
3. Alderdi metodologikoa, saioz saio edukiak lantzeko erabilitako tekniken azalpena.
Azken atalean saio bakoitzean egitea proposatzen diren dinamikak eta teknikak deskribatu ditugu. Dinamika bakoitza azaltzerakoan honako egitura jarraitu dugu:
 - **Helburuak:** dinamikaren bidez lortu nahi dugun helburuak zehazten ditugu.
 - **Teknika azaltzea:** hautatutako teknika garatzeko eman beharreko urratsak azaltzen ditugu.
 - **Shail momentua:** zenbait dinamikaren amaieran egitea proposatzen dugun teknika da, egindakoaren inguruko ondorioen gainean hausnartzen lagunduko diguna.
 - **Teknika garatzeko behar ditugun baliabideak eta denbora:** teknika bakoitza garatzeko behar dugun materialaren zerrenda jaso dugu atal honetan, eta baita teknikak behar duen denbora eta haren banaketa ere.



2. GOGOETA-PROZESUAREN DESKRIKAPEN OROKORRA

DATU TEKNIKOAK	
Saio-kopurua	Lau
Iraupena	Bi ordu eta erdi

Gogoeta-prozesuaren **eskema**:

1. SAIOA		2. SAIOA	
GAIA	HELBURUA	GAIA	HELBURUA
Taldea sortu	<ul style="list-style-type: none"> Elkar ezagutzea Taldearen espektatibak eta balioak lantzea Prozesuaren helburuak azaltzea 	Gure ikastetxeko HNP (2006-2010)	<ul style="list-style-type: none"> Azken proiektuaren balorazioa egitea
Euskara eta Ni	<ul style="list-style-type: none"> Esperientziak trukatzeko, besteen tokian jartzea Taldekideen euskararekiko bizipenak sozializatzea 	Ikastetxearen diagnostia	<ul style="list-style-type: none"> Ikastetxeko normalkuntzaren inguruko hausnarketa kolektiboa egitea

3. SAIOA		4. SAIOA	
GAIA	HELBURUA	GAIA	HELBURUA
Ikastetxearen diagnostia	<ul style="list-style-type: none"> Ikastetxeko normalkuntzaren hausnarketa kolektiboa egitea, Brankaren emaitzak interpretatuta 	Aurrera begira jarri HNP (2010-2014)	<ul style="list-style-type: none"> Proiektu berriaren helburu orokorra adostea Esparrukako helburuak zehaztea Esparrukako ekintzak zehaztea
Aurrera begira jarri HNP (2010-2014)	<ul style="list-style-type: none"> HNP (2010-2014) berria lantzea 	Prozesua ulertzea	<ul style="list-style-type: none"> Lau saioetan egindakoa ulertzea eta baloratzea
		Birkokatu	<ul style="list-style-type: none"> Pertsona eta talde moduan euskararen eta HNP berriaren aurrean birkokatzea



3. ALDERDI METODOLOGIKOA: Saioz saio edukiak lantzeko erabilitako tekniken azalpena

1. saioa		
GAI AK	HELBURUA	EGITARAU A
<ul style="list-style-type: none"> • Taldea sortu 	<ul style="list-style-type: none"> ◆ Elkar ezagutzea ◆ Taldearen espektatibak eta balioak lantzea ◆ Prozesuaren helburuak azaltzea 	<ul style="list-style-type: none"> ◆ Sarrera: taldea girotu, elkar gehiago ezagutu, espektatibak eta balioak landu ◆ Prozesuaren helburuak, eskema eta gaurko saioaren egitaraua azaldu
<ul style="list-style-type: none"> • Euskara eta Ni 	<ul style="list-style-type: none"> ◆ Esperientziak trukitzea, besteen tokian jartzea ◆ Taldekideen euskararekiko bizipenak sozializatzea 	<ul style="list-style-type: none"> ◆ Euskara gure bizitzan landu: gurpila eta ibaiak ◆ Saioa baloratu



1.1. dinamika: Elkar ezagutzea, taldea girotzea, espektatibak eta balioak lantzea

Helburuak:


- Taldekide guztiak elkar ezagutzea
- Taldean lan egiteko giro ona sortzea
- Taldekideak elkarrengandik hurbilago sentiaraztea
- Prozesuarekiko taldekide bakoitzak dituen espektatibak ezagutzea eta guztion artean taldearen espektatibak jasotzea
- Prozesu honetan elkarrekin lan egiteko garrantzitsuak diren balioak adostea

Teknika:

- Guztioi zutik jartzeko eskatuko diegu eta gelan oinez hasteko.
- Musika jarriko dugu. Une jakin batean musika eten egingo dugu, eta une horretan taldekide guztiek gelditu egin beharko dute. Bikoteak osatu beharko dituzte eta parekoa guk esandako moduan agurtu beharko dute. Ondoren, galdera bati erantzun.
- Ariketa bera (musika jarri, ibiltzen hasi, musika gelditu eta parekoa agurtu) hainbat aldiz egingo dugu, agurren zerrenda eta galderen zerrenda osatu arte. Honakoak dira laguna agurtzeko erak eta elkarri egingo dizkieten galderak:



- o *Eskuarekin / Izena eta berari buruz ez dakien zerbait*
 - o *Musu batekin / Espektatibak, gogoeta-prozesuaren aurrean dituen espektatibak*
 - o *Hanka batekin / Saioetan gustura aritzeko balio bat*
 - o *Ipurdiarekin / Lanean euskararekin eta motibazioarekin izandako esperientzia positibo bat*
- Beraz, agurtzeko modu bakoitzak galdera bat izango du oinarrian, eta galdera bakoitza bikotekide ezberdin bati egingo diogu.
 - Eseri aurretik, bakoitzak entzun dituen erantzunak hiru paper handitan idatziko ditu (balioak, esperientziak eta espektatibak jasotzeko). Horregatik, komeni da aurrez esatea memorian gorde behar ditugula ematen dizkiguten erantzunak.



- Ondoren, eseri eta lehenik tokatutako bikotea aurkeztu beharko dute talde handian, izena eta besteak berari buruz ez zekien hori...
- Guztion artean hiru paper handiak irakurriko ditugu: **lehenik balioak, gero esperientziak, eta azkenik, prozesuarekiko espektatibak.**

SHAIL momentua (Sentimenduak, **H**ausnarketa, **I**kasitakoa, **L**anarekin lotura):

Nola sentitu gara? Zer hausnartu dugu, edo zerk deitu digu atentzioa? Zer ikasi dugu? Nola lotu dezakegu gure lanarekin?

Hausnarketa bideratzeko zenbait galdera:

- Agurtzeko modu ezberdinek elkarrekin kontaktua izatera eraman gaituzte? Hori gustatu zaigu? Ala kostatu egin zaigu?
- Adostutako balioak zertarako zaizkigu baliagarri?
- Taldearen espektatibak ezagututa, espero dugun hori eman eta jasotzeko prest al gaude?
-



Teknika garatzeko baliabideak eta denbora:

Baliabideak	Denbora
<ul style="list-style-type: none">▪ Musika-ekipoa eta CDa▪ 3 paper handi (espektatibak, balioak eta esperientziak)▪ Errotulagailuak	Guztira 40 minutu



1.2. dinamika: Prozesua aurkeztea eta azaltzea

Helburuak:

- Prozesua aurkeztea

Teknika:

- Taldean ateratako espektatibak gogoeta-prozesuari jarritako helburuekin alderatuko ditugu.
- Gogoeta-prozesuko **helburuak** paper handi batean idatzita eramango ditugu eta azaldu egingo ditugu.

Gogoratu helburuak...

Orokorra:

Ikastetxeko hurrengo **lau urteetarako Hizkuntza Normalkuntza Proiektua** (HNP) **diseinatzerakoan, gogoeta-prozesua** egitea ikastetxea osatzen dutenek parte hartuta.

Zehatzak:

- o HNPK ikastetxeko behar eta egoerari erantzutea, **egiteko modukoa** izatea
 - o Gogoeta-prozesuan parte hartuko dugun guztiok **ikastea**
 - o HNParent **baliagarritasunaz** jabetzea
 - o Hurrengo lau urteetarako HNParent **garapen arrakastatsurako baldintzak** sortzea
 - o Hurrengo lau urtetako HNPrako helburu orokorra eta esparrukako helburu zehatzak adostea.
- Ondoren, **gogoeta-prozesua nondik nora** joango den azalduko dugu eta, horretarako, prozesuaren **datu teknikoak** (4 saio, 2 ordu eta erdikoak) eta eskema orokorra azalduko dugu (eskema 5. orrialdean).



- Azkenik, 1. saioaren **egitaraua** aurkeztuko dugu:

Gogoratu egitaraua...

- o Sarrera: taldea girotu, elkar gehiago ezagutu, espektatibak eta balioak landu
- o Prozesuaren helburuak, eskema eta gaurko saioaren egitaraua azaldu
- o Euskarak gure bizitzan duen espazioa landu: gurpila eta ibaiak
- o Saioa baloratu

Teknika garatzeko baliabideak eta denbora:

Baliabideak	Denbora
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Gogoeta-prozesuaren helburuen paper handia ▪ Gogoeta-prozesuaren eskemaren paper handia ▪ Egitarauaren paper handia 	10 minutu



1.3. dinamika: Euskara gure bizitzan (1)

Helburuak:

- Euskararen inguruan norik bere azterketa abiatzea

Teknika azaltzea:

Gurpilaren teknika

- Parte-hartzaileekin pertsona-kopuru bera dituzten bi borobil egingo ditugu. Biribil bat egin ondoren, bigarrena kanpoaldean kokatuko dugu eta biribil bakoitzeko kideak, bata bestearen aurkako norabidean ibiltzen jarriko ditugu, musikaren erritmora
- Ondoren, musika isilaraziko dugu eta gelditzeko eskatuko diegu. Denei beste biribilean parean daukaten pertsonarekin aurrez aurre jartzeko eskatuko diegu eta honako gaia emango diegu elkarri konta diezaioten:

Hurtzarotan euskararen inguruan izan duzun gertaera bat

- Berriz musika piztu eta bata bestearen kontrako norabidean jarriko ditugu mugimenduan, musika isilarazi eta gelditzeko eskatu arte. Oraingoan, galdera hau izango da elkarri egin behar diotena:



Gaztaroan euskararen inguruan izan duzun gertaera bat

- Berriz musika ipini eta bata bestearen kontrako norabidean jarriko ditugu, musika isilarazi eta gelditzeko eskatu arte. Oraingoan, galdera:

Berriki euskararen inguruan izan duzun gertaera bat

- Azken galdera horrekin bukatuko dugu eta ariketa euskararen inguruko azterketarekin abiatzeko egin dugula azalduko dugu.

Teknika garatzeko baliabideak eta denbora:

Baliabideak	Denbora
▪ Musika-ekipoa eta CD bat	15 minutu



1.4. dinamika: Euskara gure bizitzan (2)

Helburuak:

- Nork bere ibilbide historikoa berreirakitzea euskara ardatz hartuta. Eta, ondoren, taldean sozializatzea.

Teknika azaltzea:

Ibaiaren teknika

- Euskararekin izan dugun ibilbide historikoaren azterketarekin jarraituko dugula jakinaraziko dugu, eta baita ariketa luzea eta sakona dela ere. Aurrera begirako datu eta elementu asko emango dizkiguna.

Testua irakurri...

- Ahalik eta *erosoen jartzeko esango diegu eta begiak ixteko. Begiak itxita dituztenean Ni eta euskara testua irakurriko dugu.*



NI ETA EUSKARA

Euskara eta ni, ni eta euskara,
Noiztik elkarrekin? Betidanik?
Betidanik lagun min? Ala betidanik
ezagun?

Estua izan al da zuen harremana?
Estua al da orain zuen harremana?
Izan al da harremana sendotu duen
gertakizunik?

Izan al da harremana ahuldu duen
gertaerarik?

Euskarak emango zizkizun une gozoak? Eta
zuk euskarari?

Euskara dela-eta izango zenituen une
latzak? Eta zuregatik euskarak?

Beti biak ala izan al da hirugarrenik?
Zer eragin du inguruak harremanean? Eta
ingurukoek?

- Euskararen ibilbide historikoaren baitan gaurko egunera iristen direnean, begiak irekitzeko esango diegu, baina isilik; izan ere, pentsatzen jarraitzen duen jendea egongo da.

Ibaiak marraztu...

- Jarraian, bakoitzak nahi duen tokian eta erosoan sentitzen den moduan, Ni eta euskara ibaia egingo duela esango diegu; hau da, bakoitzak euskararen bere ibaia irudikatzeke eskatuko diegu, eta ahal dela ikusi eta sentitu dituzten une eta gauza guztiak ibaian jartzeko esango diegu. Beharrezko materiala lurrean utziko dugu.

Ibaiak sozializatu talde txikietan...

- Ibaiak marraztutakoan, bi taldetan banatuko gara, denboraren eta taldekide kopuruaren arabera, eta ibaiak sozializatzen hasiko gara.
- Taldeetan, aurkezpenen ondoren, honako galderak egingo ditugu hausnarketarako:



- o *Zein dira aurkeztutako ibaien arteko antzekotasun eta desberdintasunak?*
- o *Nola baldintzatu ditu kulturak, generoak, garaiak, politikak... gure ibaiak?*
- o *Zenbateraino daude norberaren esku edo gizartearen esku ibaietan gertatutakoak? Zenbateraino eragiten du testuinguruak?*
- o ...

- Ondorioak talde txikietan aterako ditugu eta paper handian jasoko ditugu.

Plenarioran ondorioak...

- Ondoren talde handian sozializatuko ditugu.

SHAIL momentua (S_{entimenduak}, H_{ausnarketa}, I_{kasitakoa}, L_{anarekin lotura}):

Nola sentitu gara? Zer hausnartu dugu, edo zerk eman digu atentzioa? Zer ikasi dugu? Nola lotu dezakegu gure lanarekin?

Hausnarketa bideratzeko zenbait galdera:

- Kontziente ginen euskararekiko genuen harremanaz?
- Besteekin partekatu ahal izateko lehenbizi nork bere hausnarketa egitea baliagarria izan da?
- Besteen egoera eta bizipena ezagutzeak besteak ulertzen lagundu al digu?
- ...

Teknika garatzeko baliabideak eta denbora:

Baliabideak	Denbora
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Ni eta Euskara testua ▪ Ibaiak egiteko paper handiak ▪ Margoak ▪ Errotulkiak ▪ Guraizeak ▪ Musika ▪ Hausnarketarako galderen kopiak ▪ Ondorioak jasotzeko paper handiak 	<p>Testua irakurri 5 minutu Ibaiak egiteko 20 minutu Talde txikietan 30 minutu Plenarioran 15 minutu</p> <p>Guztira 70 minutu</p>



1.5. dinamika: Balorazioa


Helburuak:

- Saioaren balorazioa egitea

Teknika:

Aurpegitxoen teknika

- Aurpegitxoen bidez honakoak baloratuko ditugu: sentimenduak, metodologia, giroa, balioak eta helburuen betetze-maila.
- Taldekide bakoitzak uste duen tokian egingo du gurutzetxoia paper handian.
- Ondoren, talde handian komentatuko dugu: ondorio orokorrak atera eta nabarmentzen diren puntuak aipamen berezia egingo diegu.



Teknika garatzeko baliabideak eta denbora:

Baliabideak	Denbora
<ul style="list-style-type: none">▪ Aurpegitxoen paper handia▪ Errotulkiak	10 minutu





Hurrengo saiorako...

2006/2010 Hizkuntza Normalkuntza Proiektuaren hiru ikasturteetako memoriak irakurtzea. Horiek ez dira hiru urte 5 baizik



2. saioa		
GAIAK	HELBURUA	EGITARAUA
<ul style="list-style-type: none">• Gure ikastetxeko HNP (2006-2010)	<ul style="list-style-type: none">◆ Azken 4 urteetako proiektuaren balorazioa egitea	<ul style="list-style-type: none">◆ Sarrera: taldea girotu eta egitaraua ezagutu◆ 2006-2010eko HNP baloratu
<ul style="list-style-type: none">• Ikastetxearen diagnosis	<ul style="list-style-type: none">◆ Ikastetxeko normalkuntzaren inguruko hausnarketa kolektiboa egitea	<ul style="list-style-type: none">◆ Ikastetxeko euskararen egoeraren hausnarketa kolektiboa egin◆ Saioa baloratu



2.1. dinamika: taldea girotu

Helburuak:

- Taldea giotzea eta lanerako baldintza egokiak sortzea

Teknika:

Pirañen teknika:

- Lurrean bi zinten arteko ibilbide estua markatuko dugu, bi oinak elkarren ondoan sartzeko adinakoa, eta bi zinten artean kokatzeko eskatuko diegu. Kontuz! oinak zintatik kanpo jarriz gero, pirañek jango baikaituzte!
- Bi zinten artean gaudela, dinamizatzailerak mutur batean jarriko da, eta emandako irizpidearen arabera ordenatzeko esango diegu. Errenkada osatzeko irizpidea kronologikoki ordenatzea da; gaiak ezberdinak izan litezke: eskolan lanean hasitako urtearen arabera, edo altueraren arabera, edo adinaren arabera... izan daiteke. Ezingo dute zintetatik kanpo oinik atera!
- Ordenean jarritakoan, SHAIL momentua egingo dugu:



SHAIL momentua (Sentimenduak, Hausnarketa, Ikasitakoa, Lanarekin lotura):

Nola sentitu gara? Zer hausnartu dugu, edo zerk deitu digu atentzioa? Zer ikasi dugu? Nola lotu dezakegu gure lanarekin?

Hausnarketa bideratzeko zenbait galdera:

- Erabilitako estrategia zein izan da?
- Estrategia adosteko bideak eta zailtasunik izan da?
- Koordinazioa egon da?
- Talde-lanak badu garrantzirik?
- Guztiok helburua argi izanda, errazagoa da lan egitea?

Teknika garatzeko baliabideak eta denbora:

Baliabideak	Denbora
▪ Lurrean pegatzeko zinta edo zeloa	15 minutu



2.2. dinamika: Saioko egitaraua aurkeztea

Helburuak:

- Saioan egingo duguna jakitea

Teknika:


- Gogoeta-prozesuaren eskema orokorra jasotzen duen paper handia begi-bistan dugula, 2. saioko egitaraua aurkeztuko dugu:

Gogoratu egitaraua...

- Sarrera: taldea girotu eta egitaraua ezagutu
- 2006-2010eko HNP baloratu
- Ikastetxeko euskararen egoeraren hausnarketa kolektiboa egin
- Saioa baloratu

Teknika garatzeko baliabideak eta denbora:

Baliabideak	Denbora
▪ Gogoeta-prozesuaren eskemaren paper handia	5 minutu
▪ Egitarauaren paper handia	



2.3. dinamika: 2006-2010eko HNParent balorazioa (1)

Helburuak:

- Aurreko HNParent balorazioa egitea

Teknika:

Denboraren lerro orokorra

- 2006-2010eko HNPa baloratzeko **ikastetxeko euskararen normalizazioaren denboraren lerroa** eraikiko dugu talde handian. Lerroaren mutur batean 2006 idatziko dugu eta bestean 2010. Guztion artean ibilbide horretan eman edo gertatu diren momentu/gertaera esanguratsuak identifikatuko ditugu.

Ikastetxearen euskararen normalizazioaren denboraren lerroa

2006

2010

- Gertaera horiek identifikatzeko **eguzkia, lainoak eta tximistaren irudiak** erabiliko ditugu:
 - Eguzkia: momentu ona/lorpena
 - lainoa: inpas momentua/noraeza
 - tximista: momentu eskasa/zailtasuna



- Irudien neurriak ere zeriskusia izango du, tximista handiak gertaera latza adieraziko du. Kolore ezberdineko folioetan moztuta eramango ditugu saiora: eguzkia horia, lainoa urdin argia, tximista laranja (Beste edozein irudi ere erabili daiteke gertaera deskribatzeko).



- Hori azalduta, irudiak gelaren erdian utziko ditugu eta taldekideak ekarpenak egin ahala, **irudia hautatu eta lerroan kokatuko du**. Irudia kokatzearekin batera, ondoan labur idatziz jasoko du esan nahi duena.
- Lerroa osatuta, galdera zehatzak erabiliz taldea hausnarketara bideratuko dugu eta **ondorioak** aterako ditugu:
 - o *Zer eguraldi egin du ikastetxean azken 4 urteetan? Zer bait nabarmentzen da?*
 - o *Egon da lerroa indartu/ahuldu duen eguzki/ekaitzik? Zerbaitek lerroa eten du edo etenik gabekoa izan da?*
 - o *Zein da lerroaren erritmoa? Konstantzia? Egon al da gertaerez betetako urterik? Nobedade handi gabekorik?*
- Ondorioak paper handian jasoko ditugu.

Zenbait ohar:

Ez dugu automatikoki inor ekarpenak egitera bultzatuko, agian, batzuek egingo dute edo ez; dinamizatzaileak taldea ekarpenak egitera motibatuko du.

Gerta daiteke momentu baten bizipena pertsona bik modu ezberdinetan bizi izana eta batentzako une hori ona izatea eta bestearentzako ez hain ona. Kasu horretan, bizipen biak jasoko ditugu. Gertaera baloratzeko orduan zalantzak agertzen badira, taldean adosteko aukera zabalduko dugu; izan ere, gerta daiteke kide batek oso argi ez izatea gertaera esanguratsuaren ondorioak onak edo txarrak izan ziren, eta taldeko iritzi ezberdinak entzunda, hasierako pertzepzio pertsonala alda dezake. Hala ere, denbora kontrolatzea komeni da.

Teknika garatzeko baliabideak eta denbora:

Baliabideak	Denbora
<ul style="list-style-type: none">▪ Denboraren lerroaren paper handia▪ Neurri ezberdineko irudiak (eguzkia, lainoa, tximista)▪ Errotulkiak▪ Hausnarketarako galderen paper handia▪ Ondorioak jasotzeko paper handia	Denboraren lerroa 25 minutu Ondorioak 15 minutu Guztira 35 minutu



2.4. dinamika: 2006-2010eko HNParent balorazioa (2)

Helburuak:

- Aurreko HNParent balorazioa egitea

Teknika:

Eremu bakoitzaren denboraren lerroak

- Ikastxearen euskararen normalizazioaren denboraren lerro orokorra bukatuta, **3 taldetan** jarriko gara. Taldeak egungo Branka berria antolatuta dagoen eremuen arabera antolatuko ditugu; beraz, talde bakoitzak eremu bat landuko du:
 - **Eremu instituzionala**
 - **Eskolako kideak**
 - **Gelaz kanpoko jarduerak**
- Talde bakoitzak gogoan izango ditu egokitu zaion eremuen baitako azpi-esparruak. Horretarako, Brankaren **egituraren eskema** emango diegu. Eskema horretan Branka berriak duen egitura eta Branka zaharrak zuen egitura azalduko ditugu.
- Kontuan izango dugu *aurreko HNPa beste modu batean dagoela antolatuta* baina gaur egungo tresnak eremu horien arabera balorazioa eskatzen du. Beraz, lehengo egitura eta gaur egungoa lotzeko ahalegina egin beharko dugu guztiok.



GAUR EGUNGO BRANKA

1. Identifikazio datuak
 - 1.1. Datu gehigarriak: ikastetxearen hizkuntza ereduak
2. Eremu instituzionala
 - 2.1. Antolakuntza: organo gorena
 - 2.2. antolakuntza: eskola kontseilua
 - 2.3. Antolakuntza: zuzendaritza
 - 2.4. Idatzizko erabilera
 - 2.5. Kanpo-harremanak
 - 2.6. Espazioaren hizkuntza. Antolaketa. Paisaia
3. Eskolako kideak
 - 3.1. Ikasleak: jatorrizko hizkuntza
 - 3.2. Ikasleak: euskara eta literatura ikasgaia
 - 3.3. Ikasleak: mintzagrama
 - 3.4. Irakasleak: ezagutza eta prestakuntza
 - 3.5. Irakasleak: mintzagramak
 - 3.6. Administrazio eta zerbitzuetako langileak: ezagutza, prestakuntza eta ahozko erabilera
 - 3.7. Gurasoak: ezagutza eta ikastetxearekin ohiko komunikazio hizkuntza
4. Gelaz kanpoko jarduerak
 - 4.1. Eskola eragile
 - 4.2. Elkarteak/Erakundeak eragile
 - 4.3. Udalerria
5. Emaitzak
 - 5.1. Emaitzak ikusi

AURREKO BRANKA

1. Branka: ikastetxearen datu osagarriak
2. Zuzendaritza: euskararen ezagutza eta ahozko erabilera
3. Irakasleak: euskararen ezagutza
4. Irakasle-taldeak: ahozko erabilera
5. Administrazio eta zerbitzuetako langileak. Euskararen ezagutza eta ahozko erabilera
6. Ikasgelak: Ikasle kopurua, gurasoak, ahozko erabilera eta gurasoekin harremanak
7. Ekintza osagarriak: Ahozko erabilera
8. Ikastetxeak antolatutako ekintzak. Ahozko erabilera
9. Liburutegia: Antolaketa
10. Liburutegia: Fondoak
11. Errotulazioa: Paisaia linguistikoa
12. Ingurunea: Udalerria
13. Idatzizko erabilera
14. Ahozko erabilera erakundeen artean
15. Emaitzak

- **Talde bakoitzak eremu bat baloratuko du.** Horretarako, 4 ikasturteetako memoriak izango ditugu eskuartean:
 - o 05/06 (proiektua landu zeneko ikasturtea)
 - o 06/07 ikasturteko memoria
 - o 07/08 ikasturteko memoria
 - o 08/09 ikasturteko memoria
 - o Urte hauetan ikastetxearen Gelargazkia, Arrue edo bestelako neurketaren bat egin badute ere kontuan hartuko ditugu balorazioan.
- Balorazioa aurreko dinamikan eraikitako denbora lerro orokorraren segida eta osagarri izatea da helburua. Horregatik, **denboraren lerro orokorraren azpian, eremu bakoitzak azpi-lerro bat osatuko du**, eta talde bakoitzak azpi-lerro bat egingo du. Hau da:



2006

2010

Eremu instituzionala

Eskolako kideak


Gelaz kanpoko jarduerak

- Baloratu nahiko genituzkeenak: 4 urteetan **ondo egin direnak/positiboak, hobetu beharrekoak, eta atentzioa eman diguten gauzak/momentu esanguratsuak.**
- Horiek identifikatzeko ere irudi ezberdinak erabiliko ditugu, eta horien bitartez azken 4 urteetan eremu bakoitzean eman direnak adieraziko ditugu:
 - o **Eremu instituzionaleko irudi nagusia etxea** izango da.



Horretarako 'etxea'-ren irudia banatuko dugu (neurri ezberdineko etxeak) eta taldeak irudi horren bitartez transmititu beharko du esan nahi duena. Irudia hainbat modutan erabiltzeko aukera dago (etxe txikiagoa/handiagoa, leihoekin edo gabe, atarekin edo gabe...). Taldeak irudi berri bat ere sor lezake.

- o **Eskolako kideen irudi nagusia pertsonen imajina** izango da.



Horretarako 'pertsonearen'-ren irudia banatuko dugu (neurri ezberdinekoak) eta taldeak irudi horren bitartez transmititu beharko du esan nahi duena. Irudia modu ezberdinetan erabiltzeko aukera dago (pertsonea handiagoa/txikiagoa, eskuekin edo gabe, irribarrearekin edo gabe, elkartuta edo bakarrik...). Taldeak irudi berri bat ere sor lezake.



- o **Gelaz kanpoko jardueren irudi nagusia jolasteko baloia** izango da.



Horretarako 'baloia'-ren irudia banatuko dugu (hainbat neurritako baloiak) eta taldeak irudi horren bitartez transmititu beharko du esan nahi duena. Irudia modu ezberdinez erabiltzeko aukera dago (baloi handia/txikia, zikina/garbia, koloretakoa/txuria...). Taldeak irudi berri bat ere sor dezake.

- Irudiak erabiltzeaz gain, **identifikatutakoa idazteko eskatuko diegu** eta **koloreen bidez honako hauek ezberdinduko** ditugu: positiboak (berdea), hobetzeko (gorria), atentzioa emandakoak (urdina).
- Talde bakoitzak bere azpi-lerroa bukatu ondoren, irudikatutakoa talde handian azalduko du eta elkarren artean osatuko dugu azpi-lerro bakoitza.
- Azkenik, azpi-lerroak denboraren lerro orokorraren azpian itsatsiko ditugu.

Teknika garatzeko baliabideak eta denbora:

Baliabideak	Denbora
<ul style="list-style-type: none">▪ Brankaren egitura zahar eta berriaren eskema▪ 4 ikasturteetako memoriak▪ Gelargazkia, Arrue eta bestelako neurketak (baleude)▪ Azpi-lerroen paper handiak (3 paper handi)▪ Irudiak neurri ezberdinekoak (etxeak, pertsonen siluetak eta baloiak)	<p>Azpi-lerroak 30 minutu Plenaria 20 minutu</p> <p>Guztira 50 minutu</p>



2.5. dinamika: Ikastetxearen diagnosis

Helburuak:

- Ikastetxeko euskararen egoeraren hausnarketa kolektiboa egitea

Teknika:

Praktikak, arazoak, beharrak eta interesak

- **Gaur egungo ikastetxearen euskararen egoeraren hausnarketa kolektiboa** egiteko lehenbizi honakoak hartuko ditugu kontuan:
 - o Lehen saioan ibaietatik ateratako gure bizipenen gaineko ondorioak.
 - o Ikastetxea kokatua dagoen herriko euskararen datu soziolinguistikoak.
 - o Gutako bakoitzak pentsatzen duena.

- **Talde handian egingo dugu dinamika.** Dinamizatzailleak galdera batzuk botako ditu eta taldeari erantzuten utziko diogu. (Taldea isil xamarra bada, pilota bat erabili dezakegu hitz eginarazteko edo motibatuzeko; pilota batak besteari pasatuz eta elkarri galdera horiek eginez).

- o *Zer egiten dugu gaur egun ikastetxean euskararen normalizazioa lortzeko? Zein da gure **praktika**? Zein da gure jarrera?*
- o *Zer **zailtasun/arazo** ditugu ikastetxean euskararen normalizazioari dagokionez?*
- o *Zein **behar** ditugu ikastetxean euskararen normalizazioari dagokionez?*
- o *Zein **interes** ditugu ikastetxean euskararen normalizazioari dagokionez?*

- Nork bere bizipen eta esperientziatik hitz egingo du eta **elkarren artean matrize bat osatuko dugu: kartulina berdean praktikak** jasoko ditugu; **gorrian zailtasunak**; **urdinean beharrak** eta **laranja interesak**. Matrizea dinamizatzailleak beteko du taldeak ekarpenak egiten dituen bitartean.


PRAKTIKAK	ARAZOAK
BEHARRAK	INTERESAK



- Matrizea beteta dugunean, talde handian **ondorioak** aterako ditugu.
- Matrizea aurreko dinamiketan eraikitako lerroen segidan itsatsiko dugu, ibilbide osoa ikusi dezagun.

Teknika garatzeko baliabideak eta denbora:

Baliabideak	Denbora
<ul style="list-style-type: none">▪ Ibaiak sozializatu genituenean jasotako ondorioak▪ Herriko datu soziolinguistikoak paper handian▪ Galderak paper handian▪ Matrizerako koloretako kartulinak (lau kolore)▪ Pilota	Matrizea 20 minutu Plenarioran 10 minutu Guztira 30 minutu



2.6. dinamika: Balorazioa

Helburuak:

- 2. saioaren balorazioa egitea

Teknika:

Termometroaren teknika


- Gelaren mutur batean eguraldi paregabea dago eta giroa ederra da. Beste muturrean, aldiz, termometroa 0 graduan dago, eta hotz handia egiten du.
- Taldeko kideei termometroaren mutur horiek kontuan hartuta, Otik 10era kokatzeko eskatuko diegu. Zenbat eta hobeto baloratu, eguzkitik (edo 10etik) hurbilago kokatuko gara; gaizki baloratzen badugu hotzera joango gara (edo Otik hurbilago kokatuko gara).
- Hauek dira baloratu beharreko gaiak: sentimenduak, giroa, balioak, eta helburuen betetze-maila.
- Taldekideek esandakoak idatziz jasoko ditugu.

Teknika garatzeko baliabideak eta denbora:

Baliabideak	Denbora
<ul style="list-style-type: none">▪ Ezer ez	10 minutu



3. saioa		
GAI AK	HEL BURUA	EGITARAUA
<ul style="list-style-type: none">• Ikastetxearen diagnostia	<ul style="list-style-type: none">◆ Ikastetxeko normalkuntzaren inguruko hausnarketa kolektiboa egitea: Brankaren datuak interpretatzea	<ul style="list-style-type: none">◆ Sarrera: taldea girotu eta egitaraua ezagutu◆ Ikastetxeko euskararen egoeraren hausnarketa kolektiboarekin jarraitu: BRANKAren datuak interpretatu
<ul style="list-style-type: none">• Aurrera begira jarri	<ul style="list-style-type: none">◆ HNP berria (2010-2014) lantzea	<ul style="list-style-type: none">◆ Aurrera begira jarri: HNP berria (2010-2014) landu◆ Saioa baloratu



3.1. dinamika: Taldea girotu

Helburuak:

- Taldea girotzea eta lanerako giro egokia sortzea

Teknika:

Tren itsuaren teknika:

- Taldekide guztiei 1etik 4rako zenbaki bat emango diegu., eta 4ko taldeak egingo ditugu zenbaki bera dutenak elkartuz.
- Laukote bakoitza ilaran jarriko da bata bestearen atzean.
- Laukoteko lehen hiru pertsonak begiak itxita izango dituzte eta azkena izango da begiak irekita izango dituen bakarra. Ilarako azkenak gidatuko du taldea gelan zehar. Horretarako, ezingo du hitz egin. Guztiak pasatuko dira ilarako postu guztietatik.
- Kide guztiak postu guztietatik pasatu direnean, biribil handian elkartu eta ariketaren inguruan hausnartuko dugu: SHAIL momentua.



SHAIL momentua (Sentimenduak, Hausnarketa, Ikasitakoa, Lanarekin lotura) :


Nola sentitu gara? Zer hausnartu dugu, edo zerk eman digu atentzia? Zer ikasi dugu? Nola lotu dezakegu gure lanarekin?

Hausnarketa bideratzeko zenbait galdera:

- Lasai egon gara? Begiak itxita egon gara denbora guztian?
- Non sentitu gara erosoago, aurrean, atzean edo erdian joan garenean?
- Rolak berezi ditugu?
- Kodeak adostu ditugu?

Teknika garatzeko baliabideak eta denbora:

Baliabideak	Denbora
Ezer ez	15 minutu



3.2. dinamika: Saioko egitaraua aurkeztea

Helburuak:

- 3. saioan egingo duguna ezagutzea

Teknika:

- Gogoeta-prozesuaren eskema orokorra jasotzen duen paper handia begi-bistan dugula, 3. saioko egitaraua aurkeztuko dugu:

Gogoratu egitaraua...

- o Sarrera: girotu eta egitaraua ezagutu
- o Ikastetxeko euskararen egoeraren talde-hausnarketarekin jarraitu: BRANKAren datuak interpretatu
- o Aurrera begira jarri: HNP berria (2010-2014) landu
- o Saioa baloratu

Teknika garatzeko baliabideak eta denbora:

Baliabideak	Denbora
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Gogoeta-prozesuaren eskemaren paper handia ▪ Egitarauaren paper handia 	5 minutu



3.3. dinamika: Ikastetxearen diagnosis

Helburuak:

- Ikastetxeko euskararen egoeraren hausnarketa kolektiboarekin jarraitu: BRANKAREN datuak interpretatzea

Teknika:

Brankaren datuak aztertu eta interpretatu

- **Gaur egungo ikastetxearen euskararen egoeraren hausnarketa kolektiboarekin jarraituko dugu** eta, horretarako, kontuan hartuko ditugu:
 - Aurreko saioan landutako eremu bakoitzaren azpi-lerroak,
 - Matrizean jasotako praktikak/arazoak/beharrak/interesak
 - Brankaren datuak, eremuka (ezagutza, erabilera eta Brankak berak ematen digun interpretazioa).
 - Gutako bakoitzak pentsatzen duena.
- Brankaren datuak tira bertikal batean idatziko ditugu eta aurreko saioetan landutako denboraren lerroen segidan itsatsiko dugu.
- **Talde txikietan egingo dugu dinamika. 3 talde** osatuko ditugu, berriz Brankako egitura kontuan hartuta (eremu instituzionala, eskolako kideak eta gelaz kanpoko jarduerak). Aurreko saioan azpi-lerroena egiteko erabili genituen kideek ezin dute azpi-lerro berean jardun..
- Talde bakoitzak aurrez esandako informazio horrekin guztiarekin **eremu bakoitzaren interpretazioa egingo du**. Horretarako, **hainbat galdera** botako ditugu:

- ⇒ *Orokorra: Zein da gaur egun ikastetxearen egoera eremu instituzionala/eskolako kideak/gelaz kanpoko jardueri dagokienez?*
- ⇒ *Eremu horietako bakoitzaren 2006-2010eko lerroaren interpretazioa zein da?*
- ⇒ *Zer esaten digute Brankako datuek eremu horietako bakoitzari dagokionez?*
- ⇒ *Bat datoz lerroa eta Brankako datuak?*



⇒ *Aurreko saioan landutako praktikak/arazoak/beharrak/interesen matrizerara joz, eremu horietako bakoitzaren inguruan aipamenik egin genuen? Aipamen horiek Brankako datuekin bat egiten dute?*

- Talde bakoitzak galdera horien **erantzun/ondorioak idatzita** jasoko ditu.
- Talde txikietan landutakoa **talde handian sozializatuko** dugu eta eztabaidatu.

Teknika garatzeko baliabideak eta denbora:

Baliabideak	Denbora
<ul style="list-style-type: none">▪ Aurreko saioetan landutako lerroak eta matrizea▪ Brankako datuak jasotzen dituen tira bertikala▪ Galderen erantzunak jasotzeko paper handiak▪ Margoak▪ Errotulkiak	Talde txikietan 40 minutu Plenarioan 20 minutu Guztira 60 minutu



3.4. dinamika: Aurrera begira jarri (1)

Helburuak:

- HNP berria (2010-2014) lantzea

Teknika:

Etorkizuneko denboraren lerro orokorra


- 2010-2014ko HNPa diseinatzeko **ikastetxeko euskararen normalizazioaren etorkizuneko denboraren lerroa** eraikiko dugu talde handian.
- Hala ere, ezertan hasi aurretik, 2. saioan landu genuen aurreko Proiektuaren (2006-2010) denboraren lerro orokorra gogoratuko dugu, eta baita bertan kokatu genituen une/gertaera esanguratsuak ere.
- Etorkizuneko denboraren lerroa egiteko, lerroaren mutur batean 2010 eta bestean 2014 jarriko dugu eta guztion artean ibilbide horretan eman edo gertatzea nahi eta/edo aurreikusten ditugun momentu/gertaera esanguratsuak identifikatuko ditugu.



- Gertaerak identifikatzeko lana errazteko, guztion artean **galdera honi erantzungo diogu**:

Aurrera begira, hurrengo lau urteetan, zer eguraldi egingo duela aurreikusten dugu? Hurrengo lau urteetan, ikastetxean euskararen normalizazioari dagokionez zer gertatuko da? Zer nahi dugu gertatzea?

- Gertaera horrek identifikatzeko **eguzkia, lainoak eta tximistaren irudiak** erabiliko ditugu:
 - o Eguzkia: momentu ona/lorpena
 - o lainoa: inpas momentua/noraeza
 - o tximista momentu ez hain ona/zailtasuna



- Neurri ezberdineko irudiak egingo ditugu eta eta kolore ezberdineko folioetan moztuta eramango ditugu saiora: eguzkia horia, lainoa urdin argia, tximista laranja. Beste edozein irudi ere erabili daiteke gertaera deskribatzeko.
- Galdera luzatu ostean, irudiak gelaren erdian utziko ditugu eta taldekideak ekarpenak egin ahala, **irudia hautatu eta lerro berrian kokatuko du**. Irudia kokatzearekin batera, ondoan labur idatziz jasoko du esan nahi duena.
- Lerroa osatuta, galdera zehatzak erabiliz taldea hausnarketara bideratuko dugu eta **ondorioak** aterako ditugu:



- Ze eguraldi aurreikusten dugu ikastetxean hurrengo 4 urteetan? Zerbait nabarmendu nahi dugu?
- Lerroa indartu/ahulduko duen eguzki/ekaitzik aurreikusten dugu? Zerbaitek lerroa etengo duela uste dugu edo etenik gabekoa izango da?
- Zein izango da lerroaren erritmoa? Konstantzia? Gertaerez betetako urterik egongo ote? Nobedade handi gabekorik?

- Ondorioak paper handian jasoko ditugu.

Teknika garatzeko baliabideak eta denbora:

Baliabideak	Denbora
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Aurreko saioan landutako lerroak eta matrizea ▪ Brankako datuekin tira bertikala ▪ Etorkizuneko lerroaren paper handia ▪ Margoak ▪ Errotulkiak ▪ Irudiak neurri ezberdinekoak (eguzkiak, lainoak, tximistak) ▪ Ondorioak jasotzeko paper handia 	<p>Etorkizuneko denboraren lerroa 15 minutu</p> <p>Ondorioak 10 minutu</p> <p>Guztira 25 minutu</p>



3.5. dinamika: Aurrera begira jarri (2)

Helburuak:

- HNP berria (2010-2014) lantzea

Teknika:

Etorkizuneko denboraren lerroa, eremuz eremu

- Ikastetxearen euskararen normalizazioaren etorkizuneko denboraren lerro orokorra bukatuta, **3 taldetan** jarriko gara.
- Branka Berria antolatuta dagoen eremuen arabera antolatuko ditugu kideak; beraz, talde bakoitza eremu bat izango da:
 - **Eremu instituzionala**
 - **Eskolako kideak**
 - **Gelaz kanpoko jarduerak**

- Taldeak egiterakoan 2. saioan eremu bakoitzeko ondorioak atera zituzten taldekide berak mantenduko ditugu.
- Talde bakoitzak **hurrengo lau ikasturteetako ibilbidea "aurreratu"** beharko du dagokion eremuan, aurreko saioan erabilitako irudi eta ideiak kontuan hartuta (gogoratu eremu bakoitzean irudi bat nagusi zela: etxea, pertsonaren silueta eta baloia).
- Eremu bakoitzean aurrera begirako proiektzioa egiteak, aurretik egin dugun 2010-2014 etorkizuneko denboraren lerroaren segida eta osagarri izatea du helburu. Horregatik, **etorkizuneko denboraren lerro orokorraren azpian, eremu bakoitzak azpi-lerro bat osatuko** du, eta talde bakoitzak azpi-lerro bat landuko du. Hau da:

Ikastetxearen euskararen normalizazioaren etorkizuneko denboraren lerroa

2010

2014

Eremu instituzionala

Eskolako kideak

Gelaz kanpoko jarduerak

- Proiektzioa egiteko orduan kontuan hartuko ditugu: datozen 4 urteetan **indartu beharko ditugun alderdi positiboak????????, hobetu beharrekoak, eta etorkizunean nabarmendu nahi ditugun une esanguratsuak.**
- Horiek identifikatzeko ere irudiak erabiliko ditugu (aurrekoan erabilitakoak). Irudi horien bitartez adieraziko dugu hurrengo 4 urteetan eremu bakoitzean jaso nahi ditugunak. Azken finean, helburua da hurrengo 4 urteetan eremu bakoitzean zer nolako ikastetxea eraiki nahi dugun irudikatzea.




- o **Eremu instituzionaleko irudi nagusia etxea** izango da.



Horretarako 'etxea'-ren irudia banatuko dugu (neurri ezberdineko etxeak) eta taldeak irudi horren bitartez transmititu beharko du esan nahi duena. Irudia modu ezberdinez erabiltzeko aukera dago (etxe txikiagoa/handiagoa, leihoduna edo gabea, atearekin edo gabe...). Taldeak irudi berri bat ere sor lezake.

- o **Eskolako kideen irudi nagusia pertsonen imajina** izango da.



Horretarako 'silueta'-ren irudia banatuko dugu (neurri ezberdineko siluetak) eta taldeak irudi horren bitartez transmititu beharko du esan nahi duena. Irudia modu ezberdinez erabiltzeko aukera dago (pertsona handiagoa/txikiagoa, eskuekin edo gabe, irribarrearekin edo gabe, elkartuta edo bakarrik...). Taldeak irudi berri bat ere sortu lezake.

- o **Gelaz kanpoko jardueren irudi nagusia jolasteko baloia/pilota** izango da.



Horretarako 'baloia'-ren irudia banatuko dugu (neurri ezberdineko baloiak) eta taldeak irudi horren bitartez transmititu beharko du esan nahi duena. Irudia modu ezberdinez erabiltzeko aukera dago (pertsona handia/txikia, zikina/garbia, koloretakoa/txuria...). Taldeak irudi berri bat ere sortu dezake.

- Irudiak erabiltzeaz gain, identifikatutakoa idazteko eskatuko diegu eta koloreen bidez ezberdinduko ditugu: positiboak (berdea), hobetzeko (gorria), atentzioa emandakoak (urdina)
- Talde bakoitzak bere azpi-lerroa bukatu ondoren, irudikatutakoa talde handian azalduko du eta eztabaidatu egingo dugu.



Eremuen arteko oreka:

- Eztabaida horretan **eremuen arteko oreka edo pisua** aztertuko dugu, hau da, **eremuen lehentasunen inguruko hausnarketa** egingo dugu eta idatziz jasoko du dinamizatzailerak.
- Horretarako, taldeak galdera honi erantzungo dio: Zer eremuk dauka lehentasuna eta zergatik?
- Azkenik, azpi-lerroak denboraren lerro orokorraren azpian itsatsiko ditugu.

Teknika garatzeko baliabideak eta denbora:

Baliabideak	Denbora
<ul style="list-style-type: none">▪ Azpi-lerroen paper handiak (3 paper handi)▪ Irudiak neurri ezberdinekoak (etxeak, pertsonen siluetak, eta pilotak)▪ Errotulkiak▪ Eremuen lehentasunen inguruko hausnarketa jasotzeko paper handia	Azpi-lerroak 15 minutu Plenaria 20 minutu Guztira 35 minutu



3.6. dinamika: Balorazioa

Helburuak:

- 3. saioaren balorazioa egitea

Teknika:


Posta elektronikokoaren teknika

- Saioaren balorazioa egiteko taldekideei haxe eskatuko diegu: lagun bati **posta elektronikoko mezu bat** idazteko. Postan saioaz egiten duen balorazioa jasoko dute. Besteak beste, honako hauek baloratzeko eskatuko diegu:
 - Landutako gaiak
 - Erabilitako metodologia
 - Saioaren baliagarritasuna




Teknika garatzeko baliabideak eta denbora:

Baliabideak	Denbora
<ul style="list-style-type: none">Mezuen txantiloiakBoligrafoak	10 minutu





4. saioa		
GAIAK	HELBURUA	EGITARAUA
<ul style="list-style-type: none">• Aurrera begira jarri	<ul style="list-style-type: none">◆ HNP berriaren (2010-2014) helburu orokorra adostea eta esparrukakoak zehaztea◆ HNP berriaren (2010-2014) ekintzak proposatzea	<ul style="list-style-type: none">◆ Sarrera: taldea girotu eta egitaraua ezagutu◆ HNP berriaren (2010-2014) helburuak zehaztu◆ Helburu horiek lortzeko ekintzak pentsatu
<ul style="list-style-type: none">• Prozesua ulertu	<ul style="list-style-type: none">◆ Lau saioetan egindakoa ulertzea eta baloratzea	<ul style="list-style-type: none">◆ Lau saioetan egindakoa ulertu eta baloratu
<ul style="list-style-type: none">• Birkokatu	<ul style="list-style-type: none">◆ Pertsona eta talde moduan euskararen eta HNP berriaren aurrean birkokatzea	<ul style="list-style-type: none">◆ Pertsona eta talde moduan euskararen eta HNP berriaren aurrean birkokatu◆ Saioa baloratu



4.1. dinamika: Taldea girotu

Helburuak:

- Taldea girotzea eta lanerako giro egokia sortzea

Teknika:

Planifikazioaren teknika:

- 4 taldetan jarriko gara eta taldeei gauza jakin batzuk egin ditzaten eskatuko diegu, denbora jakin batean. Hau da:
 - Minutu batean etxe bat egin behar dute, baina marraztu gabe
 - Minutu eta erdian 30 hiruki egin behar dituzte (paperak eta guraizeak emango dizkiegu)
 - 2 minutuan taldeko kideen artean dituzten erlojuak eta beste bi lortu behar dituzte.



- Ariketa bukatu ondoren, momentua planifikazioaz hausnartzeko baliatuko dugu (Shail momentua).

SHAIL momentua (Sentimenduak, **H**ausnarketa, **I**kasitakoa, **L**anarekin lotura):

Nola sentitu gara? Zer hausnartu dugu, edo zerk eman digu atentzia? Zer ikasi dugu? Nola lotu dezakegu gure lanarekin?

Hausnarketa bideratzeko zenbait galdera:

- Zer gertatu da? Ongi antolatu zarete? Lortu duzue elkar ulertzea?
- Estrategia adostu duzue?
- Planifikatzeko zailtasunak izan dituzue?
- Denbora ondo kudeatu duzue? Edo behar baino arinago?
- Jarrera konpetitiborik egon da?
- Prozesuaren urratsetan dagoeneko aurrera begira jarri gara, planifikatzen hasiko gara, eta ondorio horiek gogoan izatea komeni da.

Teknika garatzeko baliabideak eta denbora:

Baliabideak	Denbora
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Folioak ▪ Guraizeak ▪ Errotulkiak 	15 minutu



4.2. dinamika: Saioko egitaraua aurkeztea

Helburuak:

- 4. saioan egingo duguna jakitea

Teknika:

- Gogoeta-prozesuaren eskema orokorra jasotzen duen paper handia begi-bistan dugula, 4. saioko egitaraua aurkeztuko dugu:

Gogoratu egitaraua...

- o Sarrera: girotu eta egitaraua ezagutu
- o Aurrera begira jarri: HNP berriaren (2010-2014) helburuak zehaztu
- o Helburu horiek lortzeko ekintzak pentsatu
- o Lau saioetan egindako ulertu eta baloratu
- o Pertsona eta talde moduan euskararen eta HNP berriaren aurrean birkokatu
- o Saioa baloratu



Teknika garatzeko baliabideak eta denbora:

Baliabideak	Denbora
<ul style="list-style-type: none">Gogoeta-prozesuaren eskemaren paper handiaEgitarauaren paper handia	5 minutu



4.3. dinamika: Aurrera begira jarri (1)

Helburuak:

- 2010-2014ko HNP berriaren helburu orokorra zehaztea

Teknika:

Helburu orokorraren definizioa

- Aurreko saioan landu genuen ikastetxeko Hizkuntza Normalkuntza Proiektuaren (2010-2014) etorkizuneko ibilbidea, etorkizuneko denboraren lerroa, alegia.
- Gaurkoan, hori kontuan hartuta, **helburuak zehaztuko** ditugu. Lehenbizi **helburu orokorra** eta, horretarako, honako galdera honi erantzungo diogu:

Zein da ikastetxeak hurrengo lau urteetan euskararen normalizazioari dagokionez izango duen helburu orokorra? Edo zer lortu nahi du ikastetxeak euskararen alorrean datozen lau urteetan? Lau urteko epean, euskararen normalizazioari dagokionez, nora iritsi nahi dugu?

- Banaka galdera horri erantzuteko eskatuko diegu lehenik, txartel batean.
- Ondoren lau taldetan jarriko ditugu eta talde bakoitzak helburu orokor bat adostu beharko du. Hitz gakoak identifikatzeko eskatuko diegu.
- Azkenik, talde handian, txikietan egindakoa aurkeztu eta guztion artean **helburu orokor bat adostuko** dugu. Paper handian jasoko dugu.



Teknika garatzeko baliabideak eta denbora:

Baliabideak	Denbora
<ul style="list-style-type: none">TxartelakGaldera paper handianFolioakHelburu orokorra idazteko paper handia	Bakarka 5 minutu Talde txikietan 10 minutu Plenarioran 10 minutu Guztira 25 minutu



4.4. dinamika: Aurrera begira jarri (2)

Helburuak:

- 2010-2014ko HNP berriaren eremu bakoitzeko helburuak zehaztea

Teknika:

Eremu bakoitzeko helburuen definizioa

- Eremu bakoitzeko helburuak finkatzeko 3. saioan eremuko bakoitzeko etorkizuneko lerroak lantzeko egin genituen talde berdinak osatuko ditugu.
- Talde bakoitzak lantzen diharduen eremuaren helburua zehaztuko du, kontuan hartuta eremuaren etorkizuneko lerroak jasotzen duena.
- Talde txikian egindakoa talde handian sozializatuko dugu eta guztion artean adostuko ditugu helburuak. Paper handian jasoko ditugu.

Teknika garatzeko baliabideak eta denbora:

Baliabideak	Denbora
<ul style="list-style-type: none">FolioakBoligrafoakEremu bakoitzeko helburuak idazteko paper handia	Talde txikietan 15 minutu Plenarioran 10 minutu Guztira 25 minutu



4.5. dinamika: Aurrera begira jarri (3)

Helburuak:

- 2010-2014ko HNP berriaren ekintzak pentsatzea


Teknika:

Ekintzen euri-jasa

- Talde txiki berberetan jarraituko dugu lanean eta talde bakoitzak dagokion eremuan garatzeko **ekintzen euri-jasa** egingo du.
- Ekintzen euri-jasa errazteko, aurreko saioetan, lerroak eraikitzerakoan, ekintzak zehaztu ditugula gogoraraziko diegu. Ariketa honetan gure ezagutzatik, esperientziatik eta sormenetik abiatuko gara.
- Galeria teknikaren bidez beste taldeek egindakoa osatuko dugu. Hau da, talde bakoitzak egindakoa horman itsatsi eta galeria bat izango balitz bezala, beste taldekideek egin dutena irakurri eta osatzen joango gara.
- Gero bildutako ekintzak Branka berriaren egituraren arabera, jardueramotaka sailkatu beharko dituztela esango diegu.

Teknika garatzeko baliabideak eta denbora:

Baliabideak	Denbora
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Paper handiak ▪ Errotulkiak 	Talde txikitan 10 minutu Galeria 10 minutu Guztira 20 minutu



4.6. dinamika: Birkokatu

Helburuak:

- Pertsona eta talde moduan birkokatzea

Teknika:

- Paper handi zuri batean puntu bat marraztuko dugu, eta puntu horrek euskara normalizatzeko lana edo egitekoa adieraziko du.
- Paper handian nork bere izena idatziko du, eta erdiko puntuaren hurbiltasunaren edo urruntasunaren arabera, euskara sustatzeko lanarekiko inplikazioa adieraziko dugu.
- Paper handiak **inplikazioaren pertzeptzio subjektiboaren argazkia** emango digu, eta horren azterketa egingo dugu, talde txikitara jarrita.
- Talde txikietan jasotakoa talde handian aurkeztuko dugu eta ondorioak aterako ditugu.

Teknika garatzeko baliabideak eta denbora:

Baliabideak	Denbora
<ul style="list-style-type: none">▪ Paper handiak▪ Errotulkiak	15 minutu

Prozesuaren ondoren, ikastetxeak egin beharreko pausoak...

- Aplikazioan idatzi HNPa
- Diseinu-prozesu osoa baloratu
- Diseinatu berri den HNParren berri ikastetxeko eragile guztiei eman
- Hurrengo ikasturtean HNP garatzeko antolaketa zehaztu eta giroa sortu





4.7. dinamika: Prozesuaren balorazioa

Helburuak:

- 4. saioaren eta prozesuaren balorazioa egitea

Teknika:

Koloreen teknika

Saioa baloratzeko:

- Taldekide bakoitzak saioari kolore bat emango dio eta kolore hori zergatik hautatu duen azaduko du.

Sarearen teknika

Prozesua baloratzeko:

- Baloratuko ditugunak: sentimenduak, edukia, metodologia, giroa, balioak eta espektatiben betetze-maila.
- Artilearen muturra eskuetan izanda, artile-pilota taldekide bati botako diogu. Honek adibidez 'edukien' gaineko balorazioa egingo du. Artilea atzamarrera lotu eta artile-pilota beste taldekide bati botako dio eta, honek, adibidez, 'metodologia' baloratuko du. Horrela jarraituko dugu artile-pilota taldekide guztiei iritsi arte eta guztion artean artile-sarea osatu arte.

Teknika garatzeko baliabideak eta denbora:

Baliabideak	Denbora
▪ Artilea	10 minutu



ELHUYAR
aholkularitza